LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

# LESAKA

**Xehetasun azterlana, katastroko 2. poligonoko 8. lurzatian. Hasierako onespena**

2020ko urriaren 2an, Lesakako alkateak, honako ebazpen hau eman du, bertzeak bertze:

“2020ko uztaialaren 17an Bittiria kalea 30eko eraikineko jabekideek xehetasun-azterlana aurkeztu zuten, katastroko 2. poligonoko 8. lurzatian igogailua jartzeko.

2020ko irailaren 21ean Udalari hirigintza arloan ahokularitza ematen dion Nasuvinsa enpresak, aldeko txostena eman zion.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak eta Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ematen dioten eskumenaz baliatuz,

Ondorengoa erabaki dut:

1.) Xehetasun Azterlanari hasierako onespena ematea.

2.) 35/2002 Foru Legearen 76 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, hogei egunez erakusketa publikoan jartzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarriz eta Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan ezagutzera emanez.”

Lesakan, 2020ko urriaren 15ean

Alkatea,

Ladis Satrustegui Alzugaray

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus